


Euskal AEko biztanle okupatuak %0,9 gutxitu dira eta langabezia-tasa %12,5era jaitsi 2016ko laugarren hiruhilekoan

Okupazioa batez ere gazte eta aldi baterakoengan jaitsi da

Euskal AEn, 2016ko laugarren hiruhilekoan, langabezia-tasa %12,5 da, hirugarrenean baino hamarren bat gutxiago, 2.400 langabe gutxiago, Eustaten datuen arabera. Okupatuak 903.000, aurreko hiruhilekoan baino 8.300 pertsona gutxiago (%-0,9).

Udan aldi baterako okupazioa asko hazten da; laugarren hiruhilekoan 16-24 urte bitartekoen artean dugu okupazio jaitsierarik handiena -5.700, okupazio jaitsieraren %69. Aldi baterako kontratudun soldatakoak edo kontraturik gabeak dira (-4.600) edo ez-soldatakoak (-2.800). Gizonei eragin die batik bat okupazio-jaisteak, aurreko hiruhilekoan baino 11.100 gutxiago; 2.800 emakume gehiago. Bizkaian 6.600 okupatu gutxiago; Gipuzkoan 4.200; Araban 2.400 gehiago.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatze inkesta

Jarduera sektore guztietan okupatu gutxiago

Industrian 5.900 okupatu gutxiago; zerbitzuetan 2.000; lehen sektorean 400. Eraikuntza, lehengoan.

Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean landunek duten ehunekoa, %65,9, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko hiru hamarren gutxiago. Gizonentzat %69; emakumeentzat %62,7.

Okupazio-tasarik altuena, Gipuzkoak, %67,6, aurreko hiruhilekoaren aldean 0,6 puntu gutxiago; %66,9 Arabak, 1,3 puntu gehiago; Bizkaiak %64,5, 0,7 puntu gutxiago.

489.900 familia-etxetan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude

2016ko laugarren hiruhilekoan zenbatesten da Euskal AEn 872.300 familia-etxe daudela; 591.800etan bada pertsona aktiborik (-4.800 aurreko hiruhilekoaren aldean). Erdia pasatxoan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan bezalatsu; 49.900 familia etxetan ez dago landunik, +1.900 aurreko hiruhilekoaren aldean. Aktiborik gabeko familia etxeak 280.500, +4.800.

2.400 langabe gutxiago; langabezia, %12,5; aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago

Langabeak, hots, lan bila aktibo aritu eta lanerako prest daudenak, 2016ko laugarren hiruhilekoan 129.300 direla zenbatetsi da, 2.400 gutxiago aurreko hiruhilekoan baino. Emakume langabeak, 63.200, 4.000 gutxiago. Gizonak, 1.500 gehiago, 66.100.

2016ko laugarren hiruhileko datuen arabera, langabezia-tasa %12,5 da, aurreko hiruhilekoaren aldean 0,1 puntu gutxiago. Emakumeen langabezia %12,8ra jaitsi da (ehuneko 0,8 puntu gutxiago); gizonena 0,5 puntuz gehitu, %12,2ra. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %24,8 (ehuneko 0,8 puntu gutxiago); 16-24 urte bitarteko 9.400 gazte aktibo langabezia.

Langabe-jaitsierarik handiena, Araban (-5.000); langabezia-tasa, %10,8, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 3,1 puntu gutxiago. Bizkaian %14, lehengoan; 1.000 pertsona gutxiago, 75.700 guztira. Gipuzkoan %10,9ko tasa dugu; 3.500 langabe gehiago, ehuneko puntu bat gehiago.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2016ko azaroan, 28-EBko langabezia-tasa %8,3; Espainiakoa %19,2.

Landunen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasa %56,4 da 2016ko laugarren hiruhilekoan, aurrekoan baino ehuneko sei hamarren azpitik.

Azken urtean langabezia-tasa ehuneko bi puntu baino gehiago jaitsi da, eta okupatuak 8.000 pasa gehiago

Euskal AEko biztanle okupatuak 8.100 gehiago, 2015eko laugarren hiruhilekoaren aldean. Emakumeei eragin die batik bat okupazio-handitzeak, 5.500 gehiago; gizonen kasuan, 2.600 gehiago.

Langabezia-tasa ehuneko 2,2 puntuz jaitsi da (%14,7tik %12,5era). 2015eko laugarren hiruhilekoan baino 25.500 gutxiago Euskal AEn.

2016ko laugarren hiruhilekoan Gizarte Segurantzaren okupatu egoiliar afiliatuen kopurua goraka

Euskal AEn 838.900 bazkide daudela zenbatesten da hiruhileko eta batez besteko, inkesta garaian Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako bazkide. Haien arteko %97,8 okupatuak dira Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) irizpideen arabera laugarren hiruhilekoan, 820.700 pertsona. Aurreko hiruhilekoaren aldean, 3.100 okupatu afiliatu egoiliar.

NLEko BJAko okupatu guztiak ez daude afiliatuta; 2016ko laugarren hiruhilekoan 82.300 pertsona okupatuak dira baina ez dira afiliatu gisa agertzen, enpresa ez dagoelako Euskal AEn, funtzionarioen mutualitate publikokoak direlako edo bestelako arrazoiengatik. Kolektibo honetan -9.200 okupatu dauzkagu aurreko hiruhilekoaren aldean.

Langabeen %30,5 ez daude langabe gisa erregistraturik Lanbiden

Euskal AEn bizi eta inkestaren garaian Lanbiden erregistratuta langabe kategoriaren batean zeudenen artean %67,2 langabe da NLEren definizioaren arabera, aurreko hiruhilekoan baino 4.200 pertsona gutxiago.

%80,6 erregistratuta egon dira hiruhilekoan zehar edo gehienez bajaren bat izan dute; gainerakoak aurreko aldiz erregistratu dira edo baja izan dira Lanbiden 2016ko laugarren hiruhilekoan.

BJAren NLE langabeen %30,5 ez daude langabe gisa erregistraturik Lanbiden.

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2016/IV

	2016/IV	2016/III	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.830,4	1.831,1	-0,7	0,0
AKTIBOAK	1.032,3	1.043,1	-10,8	-1,0
Gizonak	540,5	550,1	-9,6	-1,7
Emakumeak	491,8	493,0	-1,2	-0,2
Araba/Álava	154,1	156,7	-2,6	-1,7
Bizkaia	541,0	548,6	-7,6	-1,4
Gipuzkoa	337,1	337,8	-0,7	-0,2
BIZTANLERIA LANDUNA	903,0	911,3	-8,3	-0,9
Gizonak	474,4	485,5	-11,1	-2,3
Emakumeak	428,6	425,8	+2,8	+0,7
Araba/Álava	137,4	135,0	+2,4	+1,8
Bizkaia	465,3	471,9	-6,6	-1,4
Gipuzkoa	300,3	304,5	-4,2	-1,4
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	9,4	9,8	-0,4	-4,1
Industria	187,7	193,6	-5,9	-3,0
Eraikuntza	47,8	47,9	-0,1	-0,2
Zerbitzuak	658,1	660,1	-2,0	-0,3
Soldatakoak	724,5	729,9	-5,4	-0,7
- Kontratu mugagabea dutenak	519,7	520,5	-0,8	-0,2
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	204,8	209,4	-4,6	-2,2
Ez soldatakoak	178,6	181,4	-2,8	-1,5
LANGABEAK	129,3	131,7	-2,4	-1,8
Gizonak	66,1	64,6	+1,5	+2,3
Emakumeak	63,2	67,2	-4,0	-6,0
16 - 24	9,4	11,7	-2,3	-19,7
25 - 44	69,9	75,1	-5,2	-6,9
45 eta gehiago	50,1	44,9	+5,2	+11,6
Araba/Álava	16,7	21,7	-5,0	-23,0
Bizkaia	75,7	76,7	-1,0	-1,3
Gipuzkoa	36,8	33,3	+3,5	+10,5
EZ-AKTIBOAK	798,1	788,1	+10,0	+1,3
ETXEBIZITZAK	872,3	872,3	+0,0	+0,0
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	591,8	596,6	-4,8	-0,8
- Guztiak okupatuak	489,9	490,2	-0,3	-0,1
- Guztiak langabeak	49,9	48,0	+1,9	+4,0
Aktiborik gabeko etxebizitzak	280,5	275,7	+4,8	+1,7

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2016/IV

	2016/IV	2016/III	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean (e.p.*)
JARDUERA-TASA	56,4	57,0	-0,6
Gizonak	61,3	62,3	-1,0
Emakumeak	51,8	52,0	-0,2
Araba/Álava	57,3	58,3	-1,0
Bizkaia	55,9	56,6	-0,7
Gipuzkoa	56,9	57,0	-0,1
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	65,9	66,2	-0,3
Gizonak	69,0	70,4	-1,4
Emakumeak	62,7	62,1	+0,6
Araba/Álava	66,9	65,6	+1,3
Bizkaia	64,5	65,2	-0,7
Gipuzkoa	67,6	68,2	-0,6
LANGABEZIA TASA	12,5	12,6	-0,1
Gizonak	12,2	11,7	+0,5
Emakumeak	12,8	13,6	-0,8
16 - 24	24,8	25,6	-0,8
25 - 44	13,8	14,6	-0,8
45 eta gehiago	10,3	9,3	+1,0
Araba/Álava	10,8	13,9	-3,1
Bizkaia	14,0	14,0	+0,0
Gipuzkoa	10,9	9,9	+1,0
EZ-AKTIBOTASUN TASA	43,6	43,0	+0,6

*e.p. = Aldea, ehunekotan

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etikiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEn Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago (BJA)

Euskal AEn Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko datu-bankua (BJA)